



66. zk | 2017ko apirila

Berbarotarra



IKA, IKA, IKA, BADATOR KORRIKA!

Euskararen aldeko egitasmoa apirilaren 7an pasako da Durangotik

Ostiral honetan bertan, apirilaren 7an, helduko da gurera Korrika. Euskal Herri osoa zeharkatzen duen ibilbidea Otxandion hasiko da martxoaren 30ean, eta hamar egun eta bi mila kilometroren ostean, igandean helduko da helmugara, Iruñera.

Aurtengoa 20. edizioa da, eta Korrikaren sortzaileak dira omenduak. Mezuari dagokionez, BATZUK da aukeratutako leloa; hau da, BAT eta ZUK berben jokoa erabili dute bat egitera deitzeko; zuk egitera gonbidatzeko; euskaraz egitera animatzeko.

Aurten ere, Berbarok, Plateruenak eta

Anbotok elkarrekin egingo dugu korrika; hain zuzen, 2125. kilometroan, Elkarte-gi pareko zebrabidean hasita. Itzartuko gazteek izango dute lekukoa eroateko ardura, arratsaldeko 19:00ak bueltan.

Behin Korrika pasata, jai-giroa izango dugu Durangon: 19:30ean, triki-batukada-poteoa egongo da Andra Marian hasita; 21:30ean, Korrika afaria egingo da Plateruenean; eta, ondoren, antzokitik irten gabe, Korrika jaia izango dugu, besteak beste, DJ Bullen saioa. Afarirako txartelak salgai daude Plateruenean eta Abarrak euskaltegian (helduena 15€ eta haurrena 6€). Animatu!

Umeak ere Korrikan



Aurten ere, aurreko urteetan moduan, Korrika Txikia antolatu dugu AEK-rekin, EHE-rekin eta Durangoko ikastetxeekin elkarlanean; umeak ere euskararen alde arinetan egiteko aukera izan dezaten. Apirilaren 6an izango dugu hitzordua, Korrikaren bezperan, arratsaldeko 14:30etik aurrera.

Landako eskolan ekingo diogu ibilbideari, eta Jesuitak, San Antonio-Santa Rita, Kurutzia, Zabalarra eta Nervers ikastetxeetako ikasleak batu ondoren, Landako Gunean amaituko da.

Bertan, elkarrekin dantzatu dugu Berbaroko hezitzaileek aurtengo Korrikako abestirako apropos prestatutako koreografia, eta zirko-giroan, bihar-muneko ospakizunekin hasiko gara.



Gure km: 2125

Eguna: apirilak 7

Lekua: Landako etorbidea

Ordua: 19:12

Zer egingo duzu oporretan? Zatoz Olgetan!

Hiru oporraldi, hiru aukera, euskaraz betetako planak egiteko



Urteak lau urtaro ditu eta hirutan oporrak izaten ditugu (laurgarren oporraldia lortzeko negoziaketetan gaude). Udaokoak dira oporrik luzeenak, eta erronka eguzkiarekin batera hasi genuen, duela zazpi urte. Umil hasi ginen, 4 hezitzaile eta 30 bat umerekin osatu genuen taldea, eta, gaur egun, 17 hezitzaile eta 200 ume inguru batzen gara udan.

Neguko eta udaberriko oporraldietan ere hasiak gara aisialdi hezitzailea eskaintzen, xume hasi gara hemen ere, ea nora arte heltzen garen. Arrakasta ez da urte batetik bestera lortu, zazpi urtean egindako lanaren fruitua baita.

Harro esan dezakegu oporretako agentziak baino plan hobetoak eskaintzen asmatu dugula, beraz, zeren zain zaude oporrak gurekin "Olgetan" igarotzeko?



Badatoz udalekuak!

Haur, gazte, guraso, zein hezitzaileok jada udara begira jarri gara. Martxoan bukatu berri dugu eta nola liteke udalekuetan pentsatzen egotea? Goiz izan arren, motorrak berotzen hasi dira, konturatu baino lehen, badatoz udalekuak eta!

Urtero legez, aurten ere, 8-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako 4 kanpaldi antolatu ditugu. Aurten 225 gaztek parte hartuko dute egonaldi horietan.

Udaleku finko biak Nafarroan izango dira: bata Mendigorrian, eta bestea, Uitziko aterpetxean. Ibiltariak, berriz, txikia, Bilbon hasiko dugu eta Aiaraldean barrena ibiliko gara; eta handia, berriz, Durangotik abiatuko da eta Etxarri-Aranatzen amaituko da.

Udalekuetan parte hartzeko izen-ematea pasa den astean itxi zen, eta ia ez bezala, aurten zozketa egin dugu plazak banatzeko.

Ez dakigu Pello Zabalak aurtengo udarako zer pronostiko egin duen, baina datorrena datorrela, ez dugu inolako zalantzarik ederra izango dena!



Aho zapore gozoa utzi digu 2016ak

Urteroko zita izan genuen Berbaroko bazkideok martxoaren 15ean. 2016ko jardunaren errepasoa egin eta 2017an egiteko ditugunak azaldu genituen Bartzar Nagusian.

Urte emankorra izan da 2016a. Lan

asko eta lan ona egin zen ia, eta urteak halako emaitza utzi dugu. Bereziki nabarmendu gura dugu jende askoren ilusio eta ahaleginari esker izan dela horrela; horregatik, eskerririk asko hezitzaile talde, lantalde eta inguruan ibili zareten guztioi.

Aho zapore gozoz utzi gaitu, horrenbestez, joan den urteak. Baina denbora azkar doa eta dagoeneko 2017ko udaberriak hartu gaitu. Dagoeneko ekin diogu indarrez eta gogotsu aurtengoari, eta zuzendaritza kide eta lantaldekook, Durango euskalduntzearen alde lanean gogor

saiatuko garela helarazi gura dizuegu bazkideoi.

Zuzendaritza kide izan nahi duzu?

Aurten ere, antolatuko ditugun egitasmo eta ekintzetan alboan izan gura zaituztegu. Eta urtero legez, aurten ere, zuzendaritza batzordean sartzeko gonbita zabaldu gura dugu bazkideon artean. Beraz, Berbaroren zuzendaritza kide izateko interesa baduzu, edo izan dezakeen inor ezagutzen baduzu, jo lasai asko Berbaroko lankideengana.



“Nahi barik, gaztelaniaz trebatu naiz Anboton”

MARKEL ONAINDIA Anbotoko kazetaria

Kazetari lanaz eta euskaraz ibili gara berbetan Markel Onaindiarekin. Duela 10 urte hasi zen Anboton lanean, eta gaur egun, bertako erredakzio-burua da.

- Erraza da Durangaldean kazetaritza euskaraz egitea?

Durangon, batez ere, ez da erraza; bai ordezkari politikoak bai elkarte asko erdaraz bizi dira. Hori dela eta, itzulpen-lana egin behar izaten dugu, lan doblea.

Medio irakurriena da Anboto, eta eus-

karazkoa izanda, balio handia du. Baina uste dut batzuek balio handiagoa ematen diotela gaztelaniazko prentsari, adibidez, prentsurrekoak bariku edo zapatutan egiten dituztelako, asteburuan erdarazko prentsan agertzeko asmoarekin. Guretzat desabantaila izaten da.

- Euskara arloan sorpresa atseginik izan duzu?

Ez nuen uste ikastetxe batzuetan horrenbeste euskara egingo zenik, eta bai; nigana tratua euskaraz izaten da eta irakas-

leek euren artean euskaraz egiten dute, eta saiatzen dira ikasleekin ere euskaraz egiten. Horrek asko poztu nau.

- Baina, bestela, prentsurrekoetan orokorrean erdaraz?

Elkarte batzuk saiatzen dira informazioa euskaraz ere ematen, jakinda lau edo bost kazetaritik bakarrak landuko duela gaia euskaraz. Batzuetan euskaraz egiten dute lehenengo, sinbolikoki bada ere. Anbotokook ere saiatzen gara euskarari lekua ematen. Baina nik lagunei esaten diet; kazetari lana erdara ikasteko era bat izan da niretzat. Nahi barik, gaztelaniaz trebatu naiz.

- Aipatu egiguzu urteotan idatzi duzun albiste gogoangarri bat.

Joseba Sarrionandiari egindako elkarrizketa, adibidez. Letrak borratuta dituen idazmakina zahar batean idazten duela esan zigun, edota 'Ibaia' abestia Durangoko gazteek abestuta ikusteak poza eman ziola.

- Gustura idatziko zenukeen albiste bat?

Beti kontatu gura izan dut Sarri etxera etorri dela... ea egunen batean! Albiste on gehiago ematea gurako nuke. Gaur egun albiste negatibo asko lantzen ditugu zorritzarrez; hala ere, saiatzen gara irakurleentzat atseginak eta betegarriak diren albisteak lantzen.

Olgetan benetan sortutako herri ekimena da Hitzez eta ahotsez. Sei literatur zale batu ginen eta “Sarri, hitzez eta ahotsez” izeneko egitasmoa sortu genuen 2014an. Gure helburu nagusia ingurukoak euskal literatura hurbiltzea zen, zelanbait esatearren, euskaraz irakurtzeari beldurra kendu eta euskal literaturaz gozatzea.

Arrakastatsua izan zen lehen edizioa, eta emaitza ikusita, bigarren edizioa antolatzen animatu ginen, haren ostean hirugarrena etorri zen, eta konturatu barik, laugarrenean murgilduta gaude. Lehen edizioan, Sarrionandia izan zen emanaldiaren gako nagusia. Ondoren, Itsasoa izan zen protagonista. Durangaldeko idazleei dedikatu genien hirugarren edizioa, eta aurtengo gaia berriz, BIDAIA da.

Miren Agur Meaberen hitzaldiaz eman diogu hasiera aurtengo bidaiari. Ondoren, solasaldi bi Bizenta Mogel Bibliotekan. Maiatzaren 5erako, berriz, jendurreko ekitaldi nagusia antolatzen ari gara. Plateruena Kafe Antzokian izango da. Hitzak ez eze, kantuak, dantza, antzerkia, musika zein bertsoak izango dira tartean.

Jendurreko ekitaldi horretan parte hartzeko hiru era daude; norberak sortutako lana irakurri edo kantatu; gustuko egileren batena aukeratu; edota antolatzailleok bidalitakora lotu. Pare bat minu-

HITZETZ ETA AHOTSEZ, euskal literaturara hurbiltzea helburu

Marisa Barrenak kontaktuta



tuko jarduera izango du partaide bakoitzak.

Sei bat ordu iraungo du ekitaldiak. Plateruenak aterpe egokia eskaintzen du horrelako ekimen bat burutzeko, izan ere, eszenatokian zein mostradore inguruan elkargune atseginak sortzen dira. Azken finean, zenbait orduz, literatur zaleen sare bat ehuntzen da, sarritan urtean

zehar ere irauten duen sarea.

laz 256 partaide izan ginen azken ekitaldian. Aurten ez ditugu gutxiago espero. Hori bai, partaide berrientzat ere atek zabalik ditugu, eta testu ugari prest. Parte hartu gura baduzu, hona hemen gure kontaktuak:

hitzezetaahotsez@gmail.com
eta 699 87 23 95.

Jolasaren txokoa, familian jolasteko beste modu bat!

Ume eta helduek elkarrekin jolasteko espazioa sortu dugu Plateruenarekin elkarlanean



Otsaila eta martxoa bitartean familian jolasteko 3 tailer antolatu ditugu Plateruena kafe antzokiarekin elkarlanean. Jolasak haurren garapen psikologiko, kognitibo, zein sozialean duen garrantzia identifikatu, hausnartu eta eztabaidatzeko tailerrak izan dira, eta betiere, ume eta helduei elkarrekin jolasteko aukera eskaini diegu.

Mahai-jolas tailerra, mozorro tailerra eta kantu-jolas tailerra izan dira aurtengo zikloa osatu duten saioak. 3 eta 10 urte arteko umeak dituzten 10 familia baino gehiagok parte hartu dute denetan, eta parte-hartzaileen partetik jaso dugun balorazioa oso positiboa izan da. Familia bidezko transmisioaren garrantziaz jabetzeko aukera eman du ekimenak. Seme-alabak, bilobak, bidelagunak... modu kontzientean hezteko tresnak eskaini zaizkie bertaratu; hala nola, euskarazko mahai jolas eta jostailuen zerrenda, mozorro ez sexistak aukeratzeko gida, edo/eta balio hezitzaileetan hezteko kantu liburuxka.

Aurtengo neguan jolasaren txokoa egitasmoak izan duen arrakasta ikusita, badugu aurrerantzean saio gehiago antolatzeko indarra. Izan ere, jolasten duguna ere bagara!



2017, Euskara Planak berritzeko urtea

Duela 25 urte inguru hasi ziren erakunde publikoak eta enpresak euskara planak eratzen. Tresna baliagarriak izaten dira euskararen normalizazioan aurrerapausoak zer norabidetan egin finkatzeko. Hartara, Berbaro Taldeak badu zer esana, urte askoan dabil-eta zeregin horretan.

Administrazioan bost urteko epealdia izaten dute euskara planek, eta aurtent amaituko da Durangoko Udaleko eta Amankomunazgoko euskara planen epealdia (2013-2017). Erakunde bakoitzak bi plan ditu: barnera begirakoa eta herrira begirakoa. Beraz, laster erakundeek barne erabilerarako eta herritarrei begirako egitasmoak zehaztu beharko dituzte; diagnostikoa egin, eta 2018tik 2022ra zer hobetu gura den erabaki beharko dute.

Herrira begirako planari dagokionez, Durangoko eragileok proiektu horretan parte hartzeko aukera izango dugu, eta Berbaro Taldea ere hor izango da, jakina, ekarpenak egiten. Gai honi buruzko interesa izanez gero, hurbildu gugana.

Arrosa eta Arantza

Kanpora begira egon barik, gu geu ere bagara arantzaren parte. Egunero arantza edo arrosa egoeran bizi garenek, gura zein ez.

Noiz eta zelan zeharkatzen dugu arrosatik arantzara dagoen distantzia ikusiezina? Moda, merkatuaren eskaintza, musika eta kirola dira, besteak beste, mugaren beste

aldean egotera eramaten gaituztenak.

Globalizazioak eta merkatuan masiboki ekoizten denak guri ere eragiten digu, eta egunerokotasunak hala behartuta arantzaren egotea ezinbestekoa bada ere, arantza konfort gune ez bihurtzea hautua da.

Euskaraz kontsumitzen eta transmititzen behartuta gaude arrosa izatea gura badugu, arantza garenean deseroso sentitzeraino.

